



XARE BARAKALDO LANTEGIAK 2025

Lantegi motak

Honako lantegi mota ezberdin hauek eskainiko dira:

1. App Inventor
2. Arduino – robotika
3. 3D inprimagailuak
4. Erralitate Birtuala
5. Gamer Gela
6. Bideomapping
7. Argazkilaritza mugikorrarekin

1- App Inventor

Ikastaro honen bidez Android mugikorrenzako aplikazioak sortzeko oinarriko ezagutza jasoko dugu. App Inventor zerbitzuaren interfazea erabiliz, partaideei mugikorrenzat oinarriko aplikazio bat sortzeko eta bere Android mugikorrean instalatzeko prozesua erakutsiko zaie.

Parte hartzeko partaide gomendagarria da Android sistema duen smartphonea bat eramatea.

<https://labur.eus/6sAO3>

2- Arduino-robotika

Robotikan adituek Arduino erabiltzen dute! C++ lengoia oinarritzen den tresna ahaltsu hau estandar bilakatu da jada ingeniariaren artean, baina programatzen ikasteko abiapuntu itzela ere izan daiteke. Tailer teknologiko honetan roboten prototipoak egiteko teknikak eta programazioaren oinarriak modu dibertigarrian, erronkaz-erronka, landuko dira.

Plakak, kableak, LCD pantailak eta sentsoreak (argia eta distantzia) konektatu eta programatzeko prest? Zatoz ba! Proiektu desberdin eta dibertigarri asko egingo ditugu.

<https://labur.eus/48nww>

3- 3D inprimagailuak

Badakizu gai garela guk geuk gure objektuak sortzeko 3D inprimagailu baten bidez? Taldeka objektu bat sortu, diseinatu eta modelatzeko prozesu guztia segituko dugu, objektua inprimatu arte. Baita saretik diseinuak eskuratu eta konpartitzeko aukera ere izanen dugu.

<https://labur.eus/vckJP>

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEA:





4- Erralitate Birtuala

Ibilbide labur bezain oparoa duen errealitate birtualaren mundura hurbiltzeko aukera izanen dugu tailer honetan, esperientzia hitzak beste dimentsio bat dauka. Betaurrekoak jantzi eta jauzi egin zure aurrean zabalduko den mundura. Ez du bideo-tutorialik.

5- Gamer Gela

Hasteko, bideo-jokoen kontsumoaren inguruko gogoeta egingo dugu, hizkuntzaren erabileran sakonduz. Lanketa hau inkesta eta talde eztabaida baten bidez egingo dugu, edukiak modu dinamikotan landuz. Bigarren atala bideo-jokoen praktikari dagokio eta euskarazko bideo-jokoak txandaka eta binaka probatuko ditugu. Ez du bideo-tutorialik.

6- Bideo mappinga; errealitatea areagotzen proiektzioak objektuen geometrietara doituz

Saio honetan bideo mappingaren inguruko esperientziak landuko ditugu, oinarriko kontzeptuak praktikaren bidez ezagutuko ditugu, korapilo teknikoetan sartu gabe. Lau gune izango dira eta bakoitzean ariketa bat egingo da. Bestek beste, honako hauek egingen dira: kideen gainean proiektatutako jantziak marraztu, ikasleen aurpegiak erabiliz paretetan aurpegi berriak sortu eta irudiak geometria jakin batera doitzen ikasi. Horrez gain, bideo mappingaren inguruko aplikazioen adibideak ikusiko ditugu.

<https://labur.eus/iewmd>

7- Argazkilaritza mugikorrarekin, Instagram baino gehiago

Teknologia gure gorputzaren atal berri bihurtu den honetan, eskuan eta eskura dugun mugikorrarekin argazkiak egitera ohitu gara. Baina etekinik ateratzen al diogu mugikorraren kamerari? Ezagutzen al ditugu dituen ezaugarriak?

Ikastaro honen bitartez, Instagram zein Whatsapp bidez edo bestelako sare sozialetan zein soilik beretzat argazki onak atera nahi dituen pertsonak bere kamera kontrolatzen ikasiko du, emaitza hobekak lortze aldera, sormena landuz eta teknika ezberdinak ikasiz.

Tailer honetan parte hartzeko beharrezkoa da smartphonea eramatea.

<https://labur.eus/NGvs1>

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEA:

